

Gradu Profesionala. Matrikulazioa.

Gradu Profesionaleko ikasleek 2019-2020 ikasturterako matrikula berriz egiteari buruz, jakinarazi nahi dizuet lehen aldiz erabiliko dugula zentro honetako administrazio-kudeaketa orokorrean apurka-apurka modernizatzen lagunduko duen tresna informatiko bat.

Horrek esan nahi du behin ikasleek beren espedienteetan ikasgai guztietako amaierako notak dituztenean, maila batetik goiko hurrengora igotzea, *promozioa*, zentroko idazkaritzatik automatikoki egingo da, inolako agiririk bete behar izan gabe.

Beraz, matrikula berriz egiteko, ez da inolako eskabiderik bete beharko, izapide pare bat salbuetsita.

Aintzat hartu beharreko salbuespenak hauek dira:

Uko egitea edo ikasketak uztea

- Idatziz jakinarazi beharko da, dagokion eskabidea Beteta, eta ahalik lasterren 2019/2020 ikasturteko lehen irakastegunaren aurretik, bestela ordenantza fiskaletan indarrean dagoen araudia betearaziko da.

5. eta 6. mailetara igotzen diren ikasleak

- Ikasleek hautazko ikasgaiak aukeratu eta idazkaritzako langileei jakinarazi beharko dizkiete, musika-ikasketa profesionaleri buruzko 229/2007 Dekretuari jarraituz. Hurrengo ekainaren 10etik 14ra bitarteko astean jasoko dira aukeratutako ikasgaiak ikasle bakoitzaren ikasketa-espedienteetan.

Izp.: Mariano Santamaría Lara
Zuzendari